

Mayo 2008ko Maiatza

Hiriko neska eta mutilen **Adierazpena**

**Manifiesto** de los chicos y chicas de la ciudad

**Klima Aldaketa**

**Cambio Climático**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Auzoak eta Herritarren Partaidetza  
Barrios y Participación Ciudadana

**VII. Entzunaldi publikoa. Klima Aldaketa**  
**VII Audiencia Pública. Cambio Climático**

## VII. Entzunaldi Publikoa VII Audiencia Pública

Mayo 2008ko Maiatza

Hiriko neska eta mutilen **Adierazpena**  
**Manifiesto** de los chicos y chicas de la ciudad

**Klima Aldaketa**  
**Cambio Climático**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Auzoak eta Herritarren Partaidetza  
Barrios y Participación Ciudadana





**D**onostiako ikastetxe, aisialdi eta kale hezitzaile talde desberdinetako neska-mutilak gara, eta ikas-turte guztian zehar Entzunaldi Publikoaren proiektuan lanean aritu gara Klima Aldaketa gaiaren inguruan.

Gaia egokia iruditu zitzaigun gertatzen ari den guztiagatik, baina bestalde, batzuetan errepikakorra gertatzen da, komunikabideetan, eskolan eta birziklapena dela eta etxean, asko insistitzen digute.

kontrajarria dirudien arren esan nahi dugu, lan honetan hasi ginenean, informazio nahiko ez genuela iruditzen zitzai-gun eta genuen gutxia nahastu xamar zegoela: batzuk diote, klima aldaketa bertan dugula; beste batzuk hori ez dela egia eta naturaren zikloen aldaketa propioak direla; batzuk mundua desagertzeaz dagoela eta beste batzuk, ez dela ezer gertatzen...

Orain iruditzen zaigu gure informazioa osatuagoa dagoela, edota gutxienez, helduek aurkezten dizkiguten iritziak baino datu objektiboagoekin lan egin dugula.

Proiektu honetan lan egiteko, erlazionatzeko garaian kontuan izango genituen baloreak erabakitzen aritu ginen, eta horiek errespetatzen saiatu ginen. Gaur Entzunaldi Publikoa ospatzen dugun honetan eta irakasle, ikasle eta politikoak elkarrekin gaudela, gogoratu egin nahi ditugu, Pleno Areto honetan ere baliagarri izan daitezen.

- Denon ideiak errespetatu
- Desberdintasunak errespetatu
- Txandak errespetatu
- Gainerakoek esaten dutena entzutea
- Irekiak egotea
- Garrasirik ez egitea
- Lasaitasuna
- Parte hartzea
- Elkarri lagundu hitzen bat irteten ez zaigunean, hitz egiteak lotsa ematen digunean, hizkuntzarekin zailtasunak ditugunean...
- Adi egotea
- Ideiak planteatzea
- Ongi pasatzea
- Adierazpen askatasuna

Denok elkartu ginen lehen aldian, Udaletxea zer den galdetu ziguten eta gure ustetan hemen zer egiten den. Honako erantzunak eman genituen:

- ... erakunde publiko bat dela
- ... hiritarrek beraien demandak aurkeztu ditzaketen lekua dela
- ... hiriaren funtzionamendu egokia antolatzen den lekua
- ... hiria kudeatzen da
- ... antolatu/koordinatu/konpondu
- ... hiria hobetzeko erabakiak hartzen diren lekua da
- ... hiria gidatu eta zaindu
- ... politika
- ... arazoak konpontzeko lekua
- ... hiriko pertsona guztien datuak dauden lekua
- ... jendea ezkontzen den lekua





Guk ere gauzak esan nahi ditugunez eta gure iritzi eta proposamenak Udaletxera bideratu nahi ditugunez, Entzunaldi Publikoan parte hartzen dugu.

Prozesua luzea izan da, hasiera batean ez genekien nora bideratuta zegoen egiten ari ginen lana, ez genuen ulertzen Entzunaldi Publiko batek zer suposatzen zuen, baina denborarekin, Udaletxean parte hartzeko modu hau ulertzen joan gara.

Gure lan egiteko modua honakoa izan da; lehenengo materialak klasean landu genituen, bakoitza bere gelakoekin edo taldekoekin, eta gero Udaletxean elkartzen ginen ateratako ideiak, iritziak etab. elkarri ezagutzera emateko. Gainerako taldeekin egin ditugun topaketa horietan ongi pasatu dugu, baina egia esan, lotsa pixka bat ere pasatu dugu, ez delako batere erraza ezagutzen ez duzun hainbeste jenderen aurrean hitz egitea eta pentsatzen duzuna esatea. Gainera askotan ez zaude hain ziur esan nahi duzun horretaz.

Hasieran gainerako lan guztiak bezalakoa izango zela pentsatzen genuen, baina lanean aritu garen heinean gauza gehiagorako ere baliagarri izan dela ikusi dugu: ideiak konpartitu, ideia desberdinak adierazi eta defendatu, hitz egin, komunikatu, elkar ezagutu, hiritar bezala parte hartu, elkar bizi, Udaletxeak antolatzen dituen gauzetan parte hartu, hirian garrantzia duten gauzak eztabaidatu, eta klima aldatetzat hitz egin, noski...

Gaur gainera, alkatea eta zinegotziak aurrez aurre ezagutzeko baliagarri zaigu, gure ideiei kasu egiteko.

## Aldaketa...

Ikasturte hasieran egin genuena egitera gonbidatzen zaituztegu, aldaketa zer den pentsatzea; azken urte hauetan gure bizitzan eman diren aldaketak, nola sentitu garen eta zer egin dugun eta zer ez, aldaketa horietara egokitzeke.

Gutako batzuk eskolatik instituturara pasa gara, urduri sentitu gara, arraro, jakin-minarekin eta lagun berriak egin behar izan ditugu, ez dela batere erraza, eta batez ere lasaitu. Senide batzuk ere hil egin dira...

Familia batzuetan gurasoak banandu egin dira eta amorrua, tristura eta inpotentzia sentitu ditugu, hobeto edo okerrago egokitu egin gara, asimilatuz, babesa bilatuz, pareta gogor kolpatuz...

Geroz eta ardura gehiago ditugula nabaritu dugu, badirudi etorkizunean gehiago pentsatu behar dugula, gehiago ikasi behar dugula, okupatuago gaudela... bakoitzak ahal duena egiten du... baina egia da geroz eta zalantza gehiago sortzen direla.

Lagunak ere aldatu ditugu edo lehengoei berriak gehitu dizkiegu, beldurrarekin eta lotsarekin egiazale izaten eta hitz eginaz... batzuk neskalaguna edo mutil-laguna dugu eta kontrolatuago sentitzen garen arren ilusiok merezi du.

Gure gorputzetan ere aldaketak nabaritu ditugu... baina horretaz nahiago dugu ezer ez esatea...



Gu: errudun eta biktimak

Batzuetan giltza daukagu, besteetan suntsitu behar



Helduekin, gure gurasoekin dugun erlazioa aldatzen ari da, beti espero dute gutaz gehiago, eztabaida gehiago ditugu, nahiko nahastuta sentitzen gara, baina bueno, kontua da arnasa hartzea eta ez egotea egun guztia haserre-tuta.

Horretaz gainera, eta klima aldaketarekin erlazonaturik, gure ongi pasatze-ko moduan geroz eta diru gehiago gastatzen dugu, teknologia berriak, indibidualismo gehiago, etab.

Aldaketa hitzak honako gauzak gogorarazten dizkigu:

- prozesua
- dendak
- birziklapen
- jende famatua, estetika
- eboluzioa
- aukera
- klima aldaketa
- handia
- arriskua
- bizitza
- hobekuntza
- txikia
- berrikuntza
- egokitzapena
- kontzientzia
- erreforma
- Kiotoko ituna

## Aldaketa eta hiria...

Ez gu bezain azkar, baina hiria ere aldatu egiten da eta aldaketa horiek bi taldetan banatu ditugu: hirira pixkanaka iristen diren aldaketak eta gure bizi kalitatea hobetzeko egiten diren ekintzekin zer ikusia dutenak.

- Dirua: lehen metalikoan ordaintzen zen eta gaur egun gauza asko txartelarekin ordaintzen ditugu. Honek kontsumoa potentziatzen du.
- Etxeak: desberdintasuna dago etxebizitzaren eraikuntzan, altuagoak dira baina metro gutxiago dituzte. Kalitate txarragoa dute eta garestiagoak dira.
- Janaria: lehen janariak etxeetan poliki-poliki prestatzen ziren eta gaur egun ordea prestatutako platerak edo "comida basura" delakoa kontsumitzen dugu askotan.
- Hondartzak: hauetan aldaketak gertatu dira. Orain mareak gehiago igotzen dira eta horregatik ekartzen dute udan area beste leku batzuetatik. Geroz eta turista gehiago daude.
- Landa-eremuak: hauek geroz eta eskasagoak dira, desagertzen ari dira. Eremu horietako asko orain hiri guneak dira. Geroz eta etxebizitza, errepide, autopista... gehiago behar dira... eta landa eremuetan eraikitzen dira.





## Gurpil zoro baten erdian




- Arkitektura edo hiriko estetika: Miramar Jauregia eta Kursaal konparatuz aldaketa hau erraz uler dezakegu, baita ere elizei eta etxeei begiratzen badiegu (Benta Berriko eliza eta Artzain Ona edo Alde Zahar eta zentroko eraikinak eta Unibertsitate parean egin dituzten eraikinak).Haizearen orrazian eskulturak jarri zituzten. Bulebarrean parking bat egin dute.

- Iruditzen zaigu arkitektonikoki hiria egokitzen eta modernizatzen ari dela estetika mailan eta beste zerbitzu batzuetan: birziklapena, teknologia...

- Moda edo janzkera: lehen arropa ugari etxean egiten zen eta hauek gainera berrerabili egiten ziren (anai edo arreba gazteenei pasatuz). Arropak konpontzeko (petatxuak ipini, adibidez) joera ere galdu egin da.
- Gaur egun guztia erosi egiten dugu, oso gutxi berrerabiltzen da eta zerbait puskatutakoan zaborretara botatzen dugu, markak ere oso garrantzitsuak dira gaur egun eta arropa bera ez dugu bi egunetan jarraian erabiltzen.
- Mugikortasuna: mugitzeko moduak eta garraioak izugarri aldatu dira. Egun kotxea da gehien erabiltzen dena.
- Erosketak egiteko modua: lehen gauza ugari merkatu eta azoketan erosten ziren; gaur egun supermerkatu eta komertzio handietan egiten ditugu erosketa gehienak. Ikusten dugu gure hiriak maila ekonomiko altua duela gauza askotan: arropa, janaria, bidaiak, produktu teknologikoak, denetik, geroz eta kontsumitzaileagoa da; iruditzen zaigu azken urteetan lehen baino askoz gehiago gastatzen dugula.
- Lantokiak: hauen kokagunea aldatu da. Lehen hiriaren erdian zeuden (Antiguan adibidez) eta orain ez.
- Gure hirian geroz eta azkarrago bizi garela, presa gehiagorekin gauza guztiak egiteko
- 1813an Donostia erre egin zen beraz guztia berri egin zen. Honek aldaketa handia suposatu zuen.

Hirian ongizateari begira eman diren eta ematen ari diren aldaketak:

- Espaloiak zabaldu egin dira eta oinezkoentzako bideak ugaritu.
- "Pico del oro" delakoan dauden eskailerak lehen asko irristatzen zuten eta hauek berri egin dituzte.
- Trafikoa gutxiagotzeko hiria berrantolatzen saiatzen ari dira gure hiriko bizimodua hobetzeko asmotan; bidegorriak, oinezkoen kaleak, espaloiak zabaldu...)
- Donostian bizimodua osasuntsuago izan dadin gune berdeak zabaltzeko saiakera egiten ari dira; Gladysenea, Miramon, Lauaizeta, Otxoki, Urumea ertza...)



## Klima aldaketa kalean...

Egin dugun gauzetako bat, kalera irtetea izan da jendeari klima aldaketaren inguruan duen iritzia galdetzeko:

- Batzuk diote aldaketa nabaritzen dela euri gutxiago egiten duelako, bero gehiago eta ez dugulako ia negurik
- Beste batzuk, tenperaturetan aldaketa gogorak daudela eta negua ez dela lehengo bera
- Batzuk pentsatzen dute klima aldatzen ari dela baina denbora asko barru nabariturako dela eta ez hainbeste egunero-kotasunean
- Beste batzuk diote, dena asmakuntza bat dela eta guk ezin dugula ezer egin
- Pertsona helduek diote gazteak beraiek baino kontzientziatuago daudela

Konturatu gara badela jendea gerta daitekeenaz beldur dena eta ez duela ondorioez ezer jakin nahi: beste alde batera begiratzen dute. Aldaketak pixkanaka ematen direnez, pertsona batzuk uste dute beraiei ez zaiela tokatuko hori bizitzea eta gaiaz paso egiten dute eta ez dute beharrezkotzat hartzen.

Klasean materialak lantzen egon garenean, kliman eta bere aldaketan hainbat elementuk eragiten dutela konturatu gara, adib. atmosfera, soziosfera, hidrosfera, etab. Hauen artean gainera erlazioak daude, esate baterako, soziosferak kaltea eragin dezake atmosferan. Honek esan nahi du, adibidez, lantegi edo industriek botatzen dituzten ke edo gasek atmosfera kutsatzen dutela. Argi dago ondorio hauek aldaketak eragiten dituztela; lehengo adibidearekin jarraituz, kutsadurak CO2 kantitatea handiagotuko luke, eta negutegi efektua areagotu. Bide honetatik tenperaturen igoera ematen da, polo-en urtzea eta itsaso mailaren igotzea, adibidez.

Klimaren inguruko azterketak egin ditugu eta ikusi dugu betidanik aldatzen joan den zerbait dela. Azkeneko urte hauetan, ordea, aldaketa horiek nabarmenagoak dira, zehazki ezin dugu jakin etorkizuna nolakoa izango den, ezin dugu jakin zer gertatuko den, baina ideia bat egin dezakegu.

Aldaketa horietara egokitu egin behar gara eta neurriak hartu behar ditugu poliki - poliki, gauzak okerrera ez joateko.

## Aldaketa beste ikuspuntu batetatik

Beste herrialde batzuk klima aldaketaren inguruan izan dezaketen eraginaren inguruan ere pentsatzen aritu gara edota beste herri batzuetako pertsonak gai honen inguruan pentsa dezaketenaz. Munduko leku guztietan ez dugu informazio bera, gutxiago kutsatzen den herrietan informazio gutxiago dute, beraz, denok ez dugu arazo honen aurrean ikuspegi bera. Baina argi dagoena, klima aldaketa existitzen dela da eta denok sufritzen ditugula eta sufrituko ditugula bere ondorioak, bai herrialde garatuek eta baita hain garatuak ez daudenak ere.

Herrialde garatuek kutsatzen dute gehien eta gure ustez, horiek konprometitu beharko ziren gehien hori hobetzeko. Azken finean, guk azpigaratutako herrialdeek baino kezka gutxiago ditugu, edo gutxienez, beste mota batetako kezka. Adibidez: guretzat oso arrunta da "super"era joan eta gure jana prestatzea, baina beste pertsona batzuentzat ez da hain gauza erraza, eta horregatik ezin diegu eskatu beraien oinarriko beharrak asetuta ez dauzkatenei beraien lehentasuna inguru giroa izatea.



Munduaren jabe garena pentsatuz





## Aldaketaren erritmoa...

Manifestu honetan klima aldaketaren inguruko hobekuntza proposamenak egiteko, sektore garrantzitsu desberdinak bereizi ditugu eta beraien analisi txiki bat egin dugu, euren egungo egoera hirian ezagutzeko. Donostiak klima aldaketaren aurrean bizi duen egoera ezagutu nahi dugu zenbait alderdi aldatzeko edo hobetzeko. Hori bai, Udaletxeari gure eskaerak egin aurretik, sektore bakoitzean atal bat egin dugu gure konpromisoekin. Gure ustez, lehenengo hartu ditugun konpromisoez hitz egin behar dugu, inori ezer eskatu baino lehen. Egiteko prest gauden hori da konpromisoa, horixe baita gertuen daukaguna eta lehen bai lehen egin dezakeguna. Udaletxeak pausu desberdinak eman behar ditu zerbait egin aurretik eta horregatik denbora gehiago behar du bere ekintzak burutzeko. Baina Udaletxeari ere eskatu nahi diogu bere konpromisoak hartzeko, baliabide gehiago dituelako eta jende gehiagorengana iristen delako.

## Etxebizitzari dagokionez...

**Donostiak erritmo egoki du...** energia garbiak sustatzen dituenean, prebentzio planak egiten dituenean, etxebizitzetan isolamendu termikoak egiten dituenean...

**Baina, Donostiak erritmoa galtzen du...** pertsona batzuk ez dutenean birziklatzen, isolamendu termikoaren arauak betetzen ez direnean, gune berdeetan etxebizitzak eraikitzen direnean...

### Guk hiritar bezala egin dezakegu...

- Argiak itzali behar ez baldin badira. Eguzkiaren argia aprobetxatu
- Kontsumo baxuko bonbillak erabili
- Tresna elektriko guztiak erabat itzali, ez utzi "Stand by" moduan
- Hilero berogailuaren erabilera orduak eta egunak kontrolatu gutxiago erabiltzeko
- Etxeetan leiho zaharrak aldatu hotzik ez sartzeko eta berogailua ez erabiltzeko
- Kalefakzioak jarri orde, arropa jantzi eta leihoak itxi. Udan alderantziz, gauean leihoak ireki freskatzeko, eta pertsiak itxi
- Hortzak garbitzerakoan askotan iturria irekita uzten dugu eta ixteaz gogoratu behar gara
- Labadora gutxi beteta jartzen dugu eta komeni da ahalik eta arropa gehien sartzea

### Udalari eskatzen diogu...

- Bisitatzeko etxeak esplikatzen eta kontzientziatzen nola birziklatu
- Arkitektura bioklimatikoa sustatzea
- Bizilagunei diru-laguntzak ematea eraikinean eguzki plakak jartzeko
- Energia berriak erabiltzea etxebizitza berrietan
- Egunez beroa pilatu eta gauz erabil daitezken eguzki plaken erabilera sustatzea



Mundua zapalduz...



- Baserri batetik bestera beharrezko errepideak bakarrik egitea
- Distantzia minimo bat egotea itsasoa eta etheen artean
- Zona berdeetan etxe eta errepiderik ez eraikitzea

## Mugikortasunari dagokionez...

Mugikortasunari dagokionez, dagoen garraio publikoa nahikoa da jendearen beharrak asetzeko, baina jendeak askotan nahigo izaten du kotxea hartu, batez ere lanera joateko, erosketak etxera eramateko eta

Donostiara jaisteko. Hori bai, kotxeak erdi hutsik doazela ikusi dugu eta ez direla ongi aprobetxatzen.

Autobus txofer batek esan zigun autobus publiko batzuetan oraindik gasolioa erabiltzen dela eta denetan biodiesel erabiliko balitz gutxiago kutsatuko litzatekeela.

Garraio publiko gehiago erabili behar da, baina hori pribatuarekiko alternatiba errealia izan behar da, hau da, azkarra, eroso, merke, maiztasun handikoa...

**Donostiak erritmo egokia du...** autobus kopurua handitu delako, bidegorri berriak egiten dituelako, autobusen ordutegi zabalak eta ongi komunikatuak dituelako, parada asko daudelako...

**Donostiak erritmoa galtzen du...** kotxe pribatu asko erabiltzen direnean; parkingak zentroan egitean, horrek kotxea hartzea bultzatzen duelako; errepide gehiago egitean; prezio desegokiak jartzean, Bidegorriak ez direnean puntu gutxiertara iristen eta batzuetan moztu egiten dira eta ez daude ongi komunikatuta; elbarrituentzako aparatuak askotan ez dabilta.

### Guk hiritar bezala egin dezakegu...

- Autobus eta instalazio publikoak zaindu eta errespetatu
- Taxiak eta kotxeak jende gehiagorekin konpartitu ditzakegu
- Bizikleta eta garraio txartelak gehiago erabili

### Udaletxeari eskatzen diogu...

Jendeak autobus publikoak gehiago erabiltzeko...

- Langileen tratua hobea izatea erabiltzaileekiko
- Prezioak egonkortzea
- Handiagoak izatea
- Segurtasuna hobetzea
- Ate seguruagoak jartzea
- Autobusetan bizikleta eraman ahal izatearena konpontzea, barruan sartzea ezinezkoa da...
- Garraio publikorako bonoak interneten bidez ateratzeko edo kargatzeko aukera izatea
- Garraio publikoko autobusen sarea hobetzea eta panel informatibo gehiago jartzea
- Publizitatea egitea garraio publikoa eta bidegorriak gehiago erabiltzeko
- Bidegorriak Altzan, Bidebietan, Herreran eta beste auzoetan ere egitea, ez zentroan bakarrik eta haien arteko loturak ere
- Bizikleten alokairua auzoetan ere jartzea



## Merkataritza eta zerbitzuei dagokionez...

Donostiako egoera aztertu ondoren, ikusi dugu elikadurari dagokionez, gizartea geroz eta erosoagoa dela, gure bizitzak azkarrago doazela eta geroz eta janari azkar gehiago kontsumitzen dugula. Horiek bilgarri asko behar dituzte eta horiek egiteko asko kutsatzen duten fabrikak behar dira.

Gure joera: Aurrerantz begiratu, oraina ahaztuz



Kanpoko janaria, merkeagoa denez, hemengoa baino gehiago kontsumitzen da. Beste herrialdeetako janaria ematen duten jatetxeak modan jarri dira, baina janari hori kanpotik ekartzeko garraioa gehiago erabili behar da eta horrek gehiago kutsatzen du.

Publizitateak gehiago kontsumitzera eramaten gaituela ere ikusi dugu eta Gabonetan are gehiago. Gutxiago kontsumitu eta gehiago berreraibili beharko genuke, horretarako bigarren eskuko denda gehiago beharko genituzke, horietan gehiagotan erosi beharko genuke eta ditugun gauzak gehiago erabili beharko genituzke. Behar ez dugun arropa behar dutenei eman diezaiekegu. Konponketen dendak ere gehiago behar ditugu: arropa, zapatak... konpontzeko. Baina denda horietako langileek esan digute geroz eta jende gutxiago joaten dela bertara. Komenigarri litzateke hipermerkatu gutxiago eraikitzea eta denda txikiak eta "Comercio Justo"ko dendak sustatzea.

### Guk hiritar bezala egin dezakegu...

- Bertako produktuak kontsumitu
- Bilgarri gutxi duten produktuak aukeratu
- Kanpoan egindako gauzak gutxiago erosi beharko genituzke (arropa, zapata...)

### Udaletxeari eskatzen diogu...

- Gutxiago kutsatzeko zerbaitegiteko fabrikei dirua ematea
- Baserrian lan egiten duen jendeari dirua ematea, inguruko baserrietako janaria saltzen duten denda kopurua handitzeko
- Kanpoko arropa saldu behar ez duten negozio berriei gauzak erraztea
- Hemengo dendei publizitatea erraztea
- Hemengo produktuekin denda bat ireki behar duzunean m<sup>2</sup> merkeagoa izatea
- Hemengo produktuei diru-laguntzak ematea merkeagoak izan daitezen
- Hemengo produktua erostea garrantzitsua dela kontzientziazteko kanpainak egitea

## Hezkuntza, informazioa eta ikerkuntzari dagokionez...

**Donostiak erritmo egokian egin ditu...** Entzunaldi Publikoa, Inguru Giroren Aholku Batzordea, Kristina Eneako hezkuntza eta informazio tailerrak...

**Donostiak erritmoa galtzen du...** hiritar batzuk gehiegi exajeratzen dutenean klima aldaketaren arazoaz hiritar batzuk, ez dienean hiritarrei entzuten...



## Guk hiritar bezala egin dezakegu...

- Txikiak hezi beraiek gutxiago kutsatu dezaten eta gu eredu izan
- Arreta gehiago jarri arazoak konpontzeko
- Udaletxeari proposamenak egin

## Udaletxeari eskatzen diogu...

- Gazteoi informazio gehiago ematea
- Hezkuntza proiektuak egitea

## Zerbitzu publiko eta kolektiboetarako dagokionez...

**Donostiak erritmo egokia du...** eraikuntza publikoetan eguzki plakak jartzen hasi delako

**Donostiak erritmoa galtzen du...** ez dituenean energia berriztagarriak erabiltzen, Gabonetan argi gehiegi erabiltzen dituenean

## Udaletxeari eskatzen diogu...

- Parke, rotonda eta halakoetan uraren erabilera gutxitzea eta ez erabiltzea beharrezko ez denean
- Ur edangarria berrerabiltzea, adibidez, komunitetan
- Bonbilla kontsumo baxukoak izatea, lurrerantz begira egotea argia ez galtzeko eta eguzki plakadun farolak izatea
- Farola batzuk gaez itzaltzea, jende asko ez dabilen lekuetan edota piztea bat bai eta bestea ez
- Gabonetako argien argizatze orduak eta egunak murriztea
- Aste Nagusian su artifizial asko botatzen dira eta atrakzioek ere asko kutsatzen dute
- Inauterietan karroza eramaten duen kotxea oso geldo doa eta gehiago kutsatzen du
- Pleno Aretoan bonbilla gutxiago erabiltzea
- Igogailu eta eskailera munizipalak behar dituzten pertsonak bakarrik erabiltzea

- Bulebarreko zakarrontziak hobetzea, plastikoa eta papera poltsa berdinerak doazelako
- Zabortegiak ez jarri zona berdeetan, gunek horiek xurgatzen baitute CO2 gehien
- Baso gunek handitzea eta babestea
- Eraikuntza berriko etxeak eguzkiaren berotasuna ahalik eta hoberen aprobetxatzeko moduan egitea
- Eguzki energia fotovoltaikoaz gain, beste hainbat energia berriztagarri erabil daitezke eolikoa, hidraulikoa eta maremotriza kasu
- Orain arte aipaturiko sektoreez gain, garrantzitsua da aisialdiaz hitz egitea, gure bizitzako alderdi garrantzitsu bat. Denbora librean geroz eta gehiago

Naturaren garaipena



go kontsumitzen dugu, hau da, egiten ditugun gauza gehienetan kontsumitu egiten dugu. Telebista ikusi, ordenagailua erabili, sakelakoa, play-arekin jolatu... denetan kontsumitu egin behar da. Produktu horiek egiteko garaian ere, energia asko gastatzen da eta horrek klima aldaketan eragina du. Gure aisialdian gutxiago kontsumitu beharko genuke eta kirol gehiago egin, esaterako



## Ondorioak

Guk, VII. Entzunaldi Publikoan parte hartu dugunok, klima aldaketaren inguruan lan egin ondoren, klima aldaketa existitzen dela ondorioztatu dugu; prozesu natural baten parte izan arren, gizakiak hori bultzatu eta sakondu egiten du.

Zerbait kaltegarria dela pentsatzen dugu, eta kontrajarri iruditzen zaigu aldaketaren agente aktiboak izatea eta aldi berean kaltetuenak ere gu izatea.

Gure ustez, aurre egin behar zaio, ezin baitezakegu planeta desegin, hauxe baita daukagun bakarra. Inkestetan ikusi dugu mundu guztia ez dagoela bere ohiturak aldatzeko prest; gehiengoak jarrera pasiboa du eta momentuz gelditzea ezinezko dirudienez, garrantzitsua iruditzen zaigu modu egokien nola egokitu gaitzeken lantzea.

Denon esku dago egoerak txarrera ez egitea eta gobernuan edota botere egoera batetan daudenak izan beharko lirateke lehenengoak egoerari aurre egiten eta bideratzen, bai modu lokalean eta bai modu globalean, planeta guztiari eragiten dion arazoa da.

Informatu eta sentsibilizatu egin behar dute eta baita legistlatu eta zigortu ere beharrezko denean, ohi-tura onak sustatu eta saritu eta kaltegarriak direnak zuzentzen saiatu.

Hezkuntzan inbertitzea klabea dela pentsatzen dugu: gizarte kultuago bat kritikoagoa eta manipulatzeke zailagoa izango da.

Eta ikerketan inbertitzea: zientzian eta teknologian egungo arazoek konponbideak egon daitezke.

Denontzako kalitatezko orainaldi eta etorkizun bat nahi badugu, martxan jarri behar gara.

Bueno, amaitzeko, esperientzia polita iruditu zaigula esan behar dugu, arrazoi desberdinengatik:

- Jende berria ezagutu dugu eta oso ongi pasa dugu. Gainera klase orduak galdu ditugu (hori esan beharra dago, ez?)
- Lurraren beroketa globalari buruz ez genekizkien gauza asko ikasi ditugu, hemendik aurrerako gure jarrerak aldatuko dituztenak
- Udaletxearen barnean nola parte hartu daiteken ere ikasi dugu

Espero dugu lan hau, gutxienez, baliagarri izatea gure iritziak, proposamenak eta sentimenduak ezagutzera emateko; gazteei gauza asko interesatzen zaizkigula ikusteko; falta zaiguna, beste askori bezala, kontutan hartuko gaituztela sentitzea da.

AGUR BERO BAT ETA LASTER ARTE